

## 7 UDAL ADMINISTRAZIOA

### IBARRAKO UDALA

#### **BEHIN BETIKO ONARPENA: Kaleko salmenta arautzen duen ordenantza.**

---

### IBARRAKO UDALA

#### Iragarkia

Jendaurrean jarrita egoteko arauzko epea inolako kexarik eta oharrik aurkeztu gabe igaro ondoren, 2009ko uztailaren 22an udalbatzarrak egindako ohiko osoko bilkuran hartutako hasierako erabakia indarrean jarri da eta behin betiko bihurtu da. Erabaki horren bidez, Ibarra Kale Salmenta arautzen duen Udal Ordenantza onetsi zen. Jarraian araudiaren testu osoa argitaratu dugu, apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Toki-administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 70.2. artikuluan xedatutakoa bete dadin.

Ibarra, 2009ko irailaren 22a.—Alkatea.

(1462) (11460)

Ibarra Udalerrian kaleko salmenta arautzen duen Ordenantza.

#### SARRERA

Euskal udalerrietako herri kulturaren sustarai sakonak hedatu ditu denda edo merkataritza establezimendu finkoetatik kanpo egiten den salmentak. Hasiera batean kaleko salmenta denda finkoetan saltzen ez zena saltzeko edo saldutakoa osatzeko egiten bazen ere, gaur egun, arrazoiak arrazoi, kaleko salmenta hasierako kontzeptzio hura gainditu eta gorputz sendoa hartu duen jarduera bihurtu da.

Leku finkokoa ez den salmenta, hots, kaleko salmenta deitzen dioguna geroz eta garrantzi handiagoa ari da hartzen. Hortaz, beharrezkotzat jotzen da, alde batetik, salmenta jarduerarako lehiakortasuna eta leialtasuna bermatzea, eta bestetik, kontsumitzaileen legezko eskubideak errespetatzea eta bermatzea, hala nola kontsumitzaileak babestea bai beren osasun eta segurtasunari dagokienez bai saltzen diren ondasun eta zerbitzuen kalitateari dagokienez.

Asmo horrekin egin da, hain zuzen, ordenantza hau, kalean saltzeko bete behar diren prozedura eta baldintzak arautzeko, indarrean dauden lege xedapenak betetz.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen legeak udalei azoka arloan eskumena aitortzen die eta eskumen hori gauzatzeko beharrezko ahalmena ematen die, estatuaren eta autonomia elkartearen legearen barruan.

Merkataritza txikizkariaren Antolamenduari buruzko 7/1996 legeak, udalei eskumena aitortzen die baimenak emateko kaleko salmentarako eta, bestalde, maiatzaren 27ko 7/1994 legeak euskal Herriko Merkataritza eta merkatal Jarduerari buruzkoak xedatzen du kaleko salmentak udal lizentzia behar duela eta bertan zehaztuko direla zein toki eta ordutan egin daitekeen.

Ordenantza honek bi oinarri ditu: Lehenik, estatuak eta Autonomia elkarteak emaniko legeak errespetatzen ditu arlo honetan eta, bigarrenik, irizpide batzuk zehazten ditu Ibarra udalerrian kaleko salmenta sustatzeko. Horrez gain Ordenantza honek interesak babesten ditu, bai merkatarienak, bai kontsumitzaileenak. Helburu horiek lortzeko, Ordenantzak administrazio araubidea arautzen du eta bereziki saltzaileak, jarduera

burutu ahal izateko, zaindu beharreko gutxieneko baldintzetan erreparatzen du eta baita Udal Administrazioak bete beharreko funtzioetan ere. Instalazioek bete beharreko baldintzak zehazten dira eta salmenta honetan egin daitezkeen hutsegite nahiz zigorrak ezartzen dira.

## HASIERAKO TITULUA EZARPEN EREMUA

### 1. artikulua.

Ordenantza honen helburua Ibarrako udalerrian kaleko salmenta arautzea da.

### 2. artikulua.

1. Ibarrako kaleko salmenta ordenantza honek arautuko du eta baita gainerako udal araudiak ere. Araudi honetatik kanpo dagokionari buruz, autonomia nahiz estatuko legeria aplikatuko da.
2. Salmentako titularrek araudi hau beteko dute eta baita aplikagarri diren gainerako xedapen eta erabakiei ere.

### 3. artikulua. Kaleko salmenta zer den.

Kaleko salmentatzat jotzen da merkataritza esparru itxi batetik kanpo egiten dena saltoki desmuntagarrietan edota salmentarako berariaz egokitutako ibilgailuetan. Holako salmenta ohiz horretan ari denak egiten du edo noizbehinka aritzen denak, eta saltzailea pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke. Kaleko salmentak udalaren baimena behar du, baimen hori besterengana ezina da eta gehienez ere urtebeteko iraupena izango du, ordenantza honen 26 artikuluan ezarritakoa salbu.

### 4. artikulua. Kaleko salmentaren modalitateak.

Ordenantza honen ezarpen eremuari dagozkion kaleko salmenta motak honako hauek dira:

- a) Betidanik antolatu diren aldizkako merkatuak edota berriak, leku jakinetan jartzen direnak. Gehienez asteen behin egingo dira.
- b) Azokak, jaiak, herriko ospakizunak edo eskulangintza azokak direla eta, noizean behin antolatzen diren merkatuak.
- c) Kamioi denda edo kaleetan jartzen diren postuetako salmentak, egoera eta baldintza jakinetan baimendutakoak.

### 5. artikulua. Toki jakinetako aldizkako merkatuak.

1. Kaleko salmenta egiten den saltegi multzoak dira honelako merkatuak, betidanikoak zein berriak, eta udalak erabakitako kale esparruetan egiten dira maiztasun finkoz.
2. Ibarra, ezaugarri horietako azokatzat jotzen da Emeterio Arrese plazan egiten dena Merkatu horren ordutegia 8:00etatik 14:30etara izaten da, ostegunetan (jai egunak izan ezik).

Alkateak kokaleku hori alda dezake eta baita maiztasuna ere behin-behineko nahiz behin betiko horrela aholkatzen badute erabilerari buruzko arrazoiek. Horrek ez du kalte-ordainerako eskubiderik ekarriko kaltetutako titularrentzat.

Alkateak azoka bereziak ere baimen ditzake beste kokaleku eta egun batzuetan, ohikoen baldintza berberetan eta alkate ebazpen bidez emandako beste berezietan.

Ordenantzak alkateari ematen dizkion ahalmenak eskuordetu ahalko dira legeak ezarritako baldintzetan.

6. artikulua. Nohizbehinkako merkatuak.

1. Herriko, estatuko edota autonomi elkarteko jaiak, edo festak direla eta noizean behin antolatzen diren merkatuak dira, baita udaldian edota kirol, kultur edo jai giroko gertakariak direla eta antolatzen direnak ere, edota jai horiek ospatzen diren aldian janari-edariak saltzeko direnak.
2. Eskulangintza azokak ere mota honetako artean sartzen dira. Azoka horiek udal baimenen jabe diren pertsona guztiei dagozkien berariazko jardueraren edo jardueren babesean sortutakoak dira. Azoka horiek ez ohikoak izaten dira, eta horien kokapena, maiztasuna eta saltoki kopurua aldez aurretik erabakiko dira alkate-tzak emango duen ebazpenaren bidez.

Salmenta egiten duenak berak edo beste batzuek egindako eskulanak saltzea baimentzen da merkatu horietan, hala nola: Larrukizko gaiak, zeramikazkoak, margoak, eskulturak, apaingarriak, etab.

7. artikulua. Kamioi dendak.

1. Salmenta mota hau egiteko, saltzaileak furgoneta edo kamioi moduko ibilgailuren bat erabiltzen du, betiere garraioari eta baimendutako produktuen salmentari dagozkion arauen arabera egokitutakoa.

Jarduera aldizkakoa edo noizbehinkakoa izango da, eta Udalaren baimenean agertzen den lekuan edo lekuetan egingo da.

2. Jan-edarien salmentari dagokionez, ibilgailuari egin zaizkion egokitzapenak eta osagarriak ere agertuko dira, ezarri beharreko teknika eta osasun arloko araudiak betetzen dituen edo egiaztatzeko.
3. Baimena emateko 14. atalean eskatzen diren baldintzez gain, eskabide egileek honako agiriok erantsi beharko dizkiote eskabideari: Ibilgailuaren zirkulazio baimena, ibilgailua erabiltzen duenaren gida baimena eta dagokion IAT gainditu izana egiaztatzen duen agiria.

8. artikulua. Ezarpen finkoko txosna desmuntagarrietan egiten den salmenta.

1. Kaleko salmenta mota honetan honako modalitate hauek sartzen dira:

- a) Karamelu (gozoki) eta fruitu lehorren saltokiak.
- b) Bisuteria eta eskulanen saltokiak.
- c) Izaera ekonomiko edo sozialeko gauzak eta aldizkariak saltzen dituzten saltokiak.
- d) Zirkuak, antzokiak eta bestelako ikuskizunak ezartzen direnean jartzen diren saltokiak.
- e) Berariaz loreak eta landareak saltzeko diren saltokiak.
- f) Fruta, barazki, esneki eta janari postuak.
- g) Arropa, oinetako eta larrukiak.
- h) Alfonbra postuak.
- i) Loza eta antzekoak.

2. Ez dira atal honetan sartuko desmuntatzen ez diren saltokiak, honako gaiak saltzen badituzte:

- a) Txurro eta frijituen saltokiak.
  - b) Izozki eta freskagarrien saltokiak.
  - c) Gaztaina erreen saltokiak.
3. Espresuki salbuesten ez diren gainerako saltokiak kaleko salmentatzat hartuko dira.
4. Egunkari, aldizkari, ONCEren txosna eta noizbehinkako argitalpen horiei buruzko berariazko arauetan ezarritakoarekin bat etorrita arautuko dira.

9. artikulua.

Ez dute inolaz ere kaleko salmenta izaera izango:

- a) Etxez etxeko salmentak.
- b) Urrutiko salmentak.
- c) Aldizkako salmentak.
- d) Makina automatikoen bidezko salmentak.

10. artikulua.

Ordenantza honetan aurreikusitako kasuez kanpo debekatuta dago kaleko salmenta udalerrri honetan.

I. TITULUA

KALEKO SALMENTARAKO BAIMENDUTAKO SALTOKI ETA PRODUKTUAK

11. artikulua. Salmentako produktuak.

- 1. Honako produktu hauek kaleko salmenta baimendu ahal izango da: Ehunezko gaiak, oinetakoak, garbikariak eta drogeria, loza eta porzelana, landareak, loreak, bisuteria, esku lanak, politika-, ekonomia- eta gizarte-arloko salgai eta argitalpenak, eta gorabehera eta baldintza jakinetan baimentzen diren gainerakoak.
- 2. Baimenen jabe direnek, merkaturatzen dituzten produktuen teknika- eta osasun-arloko araudiak eta ezargari zaizkien gainerako arauak bete beharko dituzte.

12. artikulua. Saltokiak.

- 1. Saltokien kopurua, horietako bakoitzean salduko diren salgaien adierazgarri eta guzti, saltokien neurriak eta gainerako baldintzak baimen bakoitzean zehaztuko ditu organo eskudunak.
- 2. Baimenen jabeek zehazten diren baldintzetara egokitu beharko dituzte euren instalazioak, betiere kontuan izanik instalazio desmuntagarri eta garraiagarriak izan beharko dutela, eta segurtasun, osasungarritasun eta kaleko egokitasun baldintzak bete beharko dituztela.
- 3. Udalak plano bat egingo du eskalan saltoki bakoitzaren zenbakia eta kokapena ikusteko eta merkatuaren antolamendua eta kontrola bermatzeko. Saltokien zenbakia bat etorriko da Udalak emango dituen baimen eta txartelean zenbakiekin.

Ez da onartuko azoka inguruan postuetatik kanpo salmentarik egitea.

Postuen neurria alda daiteke baimenak indarrena dauden bitartean eskumena duen udal organoaren ebazpenen bidez.

13 Artikulua. Asteko azokako postuen ezaugarriak.

Asteko azokako produktuen oreka mantentzearen, udalak postuak esleitzeko oinarrietan dibertsitate irizpideak ezarriko ditu eta gehienezko postu kopurua, merkatuaren ezaugarrien arabera eta produktuen

dibertsitatea bermatze aldera, hobeto funtziona dezan.

## II. TITULUA

### KALEKO SALMENTA EGITEA

#### I. KAPITULUA. -KALEKO SALMENTA EGITEKO ESKAKIZUNAK

##### 14. artikulua.

Ibarrako udalerrian kaleko salmenta egiteko honako baldintza hauek bete beharko dira:

1. Adinez nagusia izatea, laneko adin nagusitasuna kontuan izanda.
2. Legeak ezarritako ezgaitasun edo bateraezintasun kasuren batean ez egotea.
3. Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenean izen emana egotea eta kuotaren ordainketan eguneratuta egotea. Pertsona juridikoen kasuan, Gizarte Segurantzaren enpresa bezala izena emanda egotea, bere langileak afiliatuta edukitzea eta kuoten ordainkizunak eguneratuta edukitzea.
4. Merkataritza produktuei buruzko berariazko arauak ezartzen dituzten garbitasun eta osasun baldintzak edo bestelakoak betetzea.
5. Udal baimenaren jabe izatea.
6. Dagozkion prezio publikoak ordaintzea.
7. Atzerritarrei dagokienez, dagozkien egoitza eta lan baimenak lortu izana egiaztatzen duten agiriak, edota egoitza izateko eta lan egiteko gaitasuna ematen dien beste edozein agiri.
8. Saltokiaren eta bertan erabiltzen diren elementuen gertakizunei dagokien erantzukizun zibileko aseguru poliza kontratatzea.

Baldintza horietakoren bat bete ezean baimena kendu egingo da.

#### II. KAPITULUA. UDAL BAIMENAK

##### 15. artikulua.

Baimen eskaera Alkatetzara bidaliko da honako dokumentazioarekin batera:

- a) Eskatzailearen izen-deiturak.
- b) NA eta FIK pertsona juridikoak badira.
- c) Helbidea.
- d) Instalazio eta artikuluen zehaztapena.
- e) Pertsona juridikoa bada: Bere izena eta bere legezko ordezkariaren izen eta abizenak. Baimena erabiliko duen bazkidearen edo erakundeko langilearen izena, deiturak eta N.A.N.
- f) Baimenaren xedeko azokaren aldizkakotasuna eta kokapena.
- g) Eskatzen diren metroak.

##### 16 artikulua:

Aurreko eskaerarekin batera eskatzaileak agiri konpultsatuta hauek aurkeztuko ditu:

- a) NAN, ANA eta IFZren kopia, hala balegokio. Atzerritarrek bere gaineko lan-baimenaren eta egoitza-baimenaren kopia, edota egoitza izateko eta lan egiteko gaitasuna ematen dien beste edozein agiri.

- b) gizarte Segurantzaren alta agiria eta ordianketan egunean dagoela dioen egiaztagiria eta gizarte segurantzaren azken ordainagiira.
- c) Lege nortasuna dutenen kasuan, enpresa eraketaren agiria, Merkatal Erroldan behar bezala izena eman ondoren, hala behar izanez.

Era berean, ordezkaritza baliotu egin beharko da zuzenbidearen aldetik indarra duen edozein baliabidez edota, eskaera egileak berak deklarazioa eginez.

- e) Jardueran pertsonak baldin baditu, kide guztien agiriak behar dira.
- f) jarduerarako baimen dutenen egiaztagiriak titularraren izenean jarduera egiteko.
- g) Ardura zibileko aseguruaren kopia.
- h) Bi argazki.

Hasierako eskabideak ez baditu aurreko baldintzak betetzen epe batean hutsegiteak betetzeko eskatuko zaio interesdunari, horrela egiten ez badu eskaera ezetsi egingo zaila adieraziz, tramiterik gabe artxibatuz.

### III. KAPITULUA. PROZEDURA

#### 17. artikulua.

Eskabidea eta dagozkion agiriak jaso ondoren, udaleko organo eskudunak agiri horiek eta gainerako txostenak aztertuko ditu, eta baimena eman edo ez erabakiko.

#### 18. artikulua.

Udalaren baimenak nahitaez honako hauek jasoko ditu:

- a) Lizentziaren titularraren eta bere izenean aritu ahal izango diren pertsona edo pertsonen izen-deiturak edo sozietatearen izena.
- b) Saltokiari aldizkako merkatuan dagokion zenbakia, edota salmenta egin dezakeen lekua edo lekuak.
- c) Baimendutako salgaiak.
- d) Salmentarako egunak eta ordutegiak, merkatuak noizbehinkakoak direnean.
- e) Okupatuko den azalera.
- f) Instalazioaren ezaugarriak.

#### 19. artikulua.

1. Aldizkako merkatuan saltoki finkoan saltzeko baimena duten saltzaile guztiek identifikazio txartela edukiko dute. Txartel horretan honako datuok azalduko dira argi eta garbi:

- a) Titularraren eta, baleude, baimenduriko pertsonen izen abizenak
- b) Saltzeko baimenaren balio epea.
- c) Baimendutako gaiak.
- d) Postuaren zenbakia eta neurriak, merkatua noizbehinkakoa denean; eta baita saltokiaren kokapen finkoa eta saltzeko leku baimendua ere.

2. Identifikazio txartel hori udal agintariek eskatzen duten guztietan erakusteko izango da.

#### 20. artikulua.

Baimenek izaera diskrekzionala izango dute eta, ondorioz, Udal honek baliogabetu ahal izango ditu komenigarritzat jotakoan, hau da, hori eragin zuten zirkunstantziak desagertzen direnean. Baimenek ez dute efekturik izango ezarritako baldintzak betetzen ez direnean, eta hori dela eta ez da inongo kalte ordainik edo konpentsaziorik ordainduko.

Aldizka eta leku jakinetan egiten diren merkatuei dagokienez, saltzaile batek ezingo du kaleko salmentarako baimen bat baino gehiago jaso aldi berean.

21. artikulua:

Postuak lortzeko lehentasunak hauek izango dira:

Ibarran erroldatutakoak eskaera egin baino hiru urte lehenago.

Tolosaldeako eskualdean erroldatutakoak.

Ibarrako udalerrian 10 urte baino gehiago bizitu izandakoak.

Gainerakoak.

Ordenantzak ezarritako irizpideak betetzen dituztenen artean eta behin ordenantzak eskatutakoa giriak aurkeztuta; eta berdinketa emango balitz, eskaera lehenago aurkeztu duenak izango du lehentasuna.

22. artikulua.

Maiztasun eta kokapen finkoko merkatuetan urtean zehar hutsik geratzen diren saltokiak, bestalde, beren eskaria indarrean egon arren eta baldintza guztiak bete arren, aurretik baimenik lortu ez zuten eskatzaileen artean esleituko dira. Aurreko atalean ezarritako baldintzak hartuko dira kontuan eskaeraren antzinasunaz gain.

#### IV. KAPITULUA----- . -UDAL LIZENTZIAREN EZAUGARRIAK

23. artikulua:

1. Udal lizentzia pertsonala da eta ezingo zaio beste inori eskuz aldatu; alabaina, titularraren familiakoek edo behar bezala baimendutako langileek erabili ahal izango dute.
2. pertsona naturalak badira, ezkontidea, seme-alabak eta titularraren enplegatutako baimendu daitezke Gizarte Segurantzaren alta emanda.
3. Persona juridikoak badira, baimendu daitezke, gizarte segurantzaren alta emandako bazkide eta langileak.
4. Postuen titularrak baimendutako pertsonak lagunduko dituzte eta horiek gizarte segurantzaren izan emanda egongo dira bere lanaldian.

Baimendutako pertsona hori Erregistroan izen emanda egongo da udaletxean, aurreko atalean adierazitako baldintzak egiaztatu ondoren. Txartelean sartuta izango da bere argazkia.

24. artikulua.

Baimenak gehienez urtebeteko iraupena izango du; autonomoen kasuan alta agiriaren azken azken

ordainagiriarekin, ardura zibilekoa agiria eta NArekin berrituko da, noizbehinkako merkatu eta kamioi-dendetan egiten den kaleko salmentaren kasuetan izan ezik. Kasu horietan, baimenean bertan ezarriko da salmenta-mota hori zein egun jakinetan gauza daitekeen.

Alkateak baimen guztiak ezeztatu ditzake egoki irizitakoan, bera eman zeneko baldintzak betetzen ez direnean. Aldi baterako bertan uztea ere ezarri dezake, herri bidena lanak direlako edo interes publikoko beste arrazoi batzuegatik. Behin-behineko leku aldatzea egin daiteke egoera horietan.

Berritzeko, udal agintaritzari hilabeteko epean agiriak aurkeztu behar zaizkio.

## V. KAPITULUA. BAIMENA INDARGABETZEA

### 25. artikulua:

Salmenta-baimenaren iraungipen-arrazoi izango dira honako hauek:

- a) Baimenaren iraupen-aldia amaitzea.
- b) Jabeak baimenari uko egitea.
- c) Jabea hiltzea edo, hala balegokio, enpresa desegitea.
- d) Saltokiak eskuz aldatzea.
- e) Baimena galtzea dakarren zigorra.
- f) Dagozkion prezio publikoak ez ordaintzea.
- g) Baimena lortzeko eskatzen diren baldintza guztiak edo horietakoren bat galtzea.
- h) Udalak aurretik jakin gabe 2 astetan jarraian merkatura ez joatea.
- i) Udalak baimena ezeztatzen duelako, 20. atalean ezarrita dagoenez.
- j) Kokapen eta maiztasun finkoko merkatua edo udalerrian kaleko salmenta oro har etetea.
- k) Baimena berritzea ez eskatzea.

d), e), f), g), h) eta i) arrazoiek eragindako iraungipenerako beharrezkoa izango da aginpidea duen udal organoak akordioa hartzea, interesatuari, 15 eguneko gehienezko epearen barruan, entzun ondoren.

## III. TITULUA

### KALEKO SALMENTA EGITEN DUTENEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

#### 26. artikulua. Eskubideak.

1. Ibarako udalerrian kaleko salmenta egiteko udal baimenen jabe direnek honako eskubide hauek izango dituzte:

Baimena duteneko saltokiak betetzekoa.

Udalak baimendutako salmenta jarduera jendaurrean eta baketsuki gauzatzekoa, baimenean zehaztutako ordu eta baldintzetan eta/edo dagokion merkatuari aplikagarri zaion ordenantza berezian agintzen direnetan.

Baimendutako jarduera egin ahal izateko, herriko agintaritzaren eta udaltzaingoaren babesa eskatzekoa.



Baimena eman den merkatua eteten bada, udal baimenaren jabe denak haren ordeztan egin daitezkeen merkatuan beste saltoki bat lortzeko lehentasuna izatekoa, eta, ahal den neurrian, iraungitako baimenaren baldintza berak gordez.

Jarduera gauzatzea baimentzen deneko merkatuaren funtzionamendua hobetzeko erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztekoa.

Udalak banatzen duen identifikazio txartela jasotzekoa, 18 art.an adierazia.

Berari dagokion saltokian salmenta egitekoa, bai berak bai bere familia unitateko pertsona baimenduak edo jarduera horretan beretzat lan egiten duenak.

Bere saltokia non dagoen jakitekoa. Saltoki hori, betiere, galipotez, solairuz edo porlanez estalitako zoruaren gainean ezarri beharko da.

Salmentarako baimendu den data ez aldatzea Udalak, salbu jaieguna edo gertakizun bereziren baterako eguna denean; holakorik gertatzen bada, Udalak aldeztetik jakinaraziko die behar adina denboraz sal-tzaileei.

2. Aldizkako merkatuetan kaleko salmenta gauzatzeko udal-baimenaren jabeek, halaber, azoka horietan salmentak eragindako hondakinak jasotzeko esparrua edo edukiontzia erabiltzeko eskubidea izango dute.

27. artikulua. Obligazioak.

1. Kaleko salmenta gauzatzeko udal baimenaren jabeek honako zehaztapen hauek bete beharko dituzte:

- a) Salmenta saltoki edo instalazio desmuntagarrietan egin beharko da, edota 12. eta 12. ataletan zehaztutako baldintzak betetzen dituzten kamioi dendetan, hau da, garraio errazak eta jarduera horretarako egokiak.
- b) Saltokien jabeek agerian ezarriko dute euren udal baimena edota bestela udal agintaritzari edozein unetan erakusteko moduan edukiko dute. Betebehar hori ez betetzeak edota baimenean zehazten ez diren produktuak saltzeak saltokia badaezpada ixtea ekarriko du, bidezko den zigor espedienteari hasiera ematearen kalterik gabe.
- c) Saltzaileek, merkataritza jarduera gauzatzekoan, unean uneko arauak merkataritza, merkatuko erregimenaz eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesaz xedatutakoa bete beharko dute.
- d) Saltokietan txartelak eta etiketak ezarriko dituzte, eta horietan ikusteko moduan agertuko dira eskaintzen diren produktuen prezioak. Salgai dauden produktuen prezioa argi eta garbi azalduko da, une oro gai honi buruz indarrean dagoen legeria betez. Soltean saltzen diren produktuei dagokienez, hau da, salmentako prezioa produktuaren kopuruaren edo bolumenaren arabera zehazten diren produktuei dagokienez, prezioa neurri unitatetan emango da. Era berean, salgaien izakin guztiak agerian edukiko dituzte, eta ezingo da salgai horien zati bat bereizi, aukeratu edo ezkutatu.
- e) Saltokietako titularrak saltokian bertan egongo dira merkatua zabalik dagoen denboran; titularrak, hala nahi badute, udalak baimendutako beste batzuekin egon daitezke saltokian.
- f) Behar bezalako erakustagiriak dituzten udaleko langile edo agintaritzak eskatzen dietenean, erakutsi beharreko agiri guztiak erakutsiko dizkiete saltzaileek.
- g) Aldizka antolatzen den asteroko merkatua 8:00etatik 14:30ak arte egongo da zabalik, eta zamalanak ordutegi horretaz kanpo, 7etatik 8etara, egin beharko dira. Salmenta orduetan debekatu egiten da ibilgailuak merkatuaren barruan ibiltzea.

Merkantziak kentzea eta instalazioa desmuntatzea 14,30etatik 15,30etara egingo da eta postuak hutsik geratuko dira, titularrek eremua hutsik utziko dute eta ingurua garbi, edozein zikinkeria kenduta.

Salmenta gauzatzen dutenen ibilgailuak ezingo dute merkatuaren barrualdean egon, ez eta saltokiaren ondoan ere. Merkatuaren kanpoaldean horretarako jarriko diren tokietan aparkatu beharko dira. Kamioi-dendak debeku horretatik kanpo daude.

Udaltzaingoak emandako oharrak beteko dira beste ibilgailuan pasabidea eta lanpostuen instalazioa ez oztopatzeke.

Noizbehinkako merkatuen eta eskulangintza-azoken orduak onartzeko alkatetzak ematen duen ebazpenean ezarriko da

h) Salmenta gauzatzen dutenen ibilgailuak ezingo dute merkatuaren barrualdean egon, ez eta saltokiaren ondoan ere. Merkatuaren kanpoaldean horretarako jarriko diren tokietan aparkatu beharko dira. Kamioi dendak eta berariaz horretarako baimena duten ibilgailuak debeku horretatik kanpo daude.

Salgaien zamalanak egiteko, ibilgailuek merkatuaren barruan aparkatu ahal izango dute lan horiek erabat amaitu arte eta betiere zeregin horietarako ezarriko diren ordutegien barruan.

Merkataritza-ihardueraren ondorioz sortzen diren zaborrak, ontziak, bilgarriak eta gainerako hondakinak horretarako ezarritako edukiontzietan gordeko dira. Edukiontzi horien ezarpena ezin izango da aldatu kaleko salmentako jardueraren eraginez.

i) Baimenen jabeek salmentarako esparruak eta tokiak errespetatuko dituzte. Salmentarako gunek ez dira inoiz toki publiko, pribatu edo merkataritza edo industria etheen sarbideetan jarriko. Era berean, horien erakusmahai edo erakustokiak, trafiko seinaleak edo bestelako adierazgarriak ikustea eragozten dutela ere ezin izango dira jarri. Kaleen bidegurutzeetan, oinezkoentzako pasaguneetan edo etxebizitza, denda edo ibilgailuak gordetako sarreretan ere ezin izango dira ezarri.

j) Kaleko salmenta gauzatzen dutenek kontsumitzaileen erreklamazioak, horrelakorik badago, zein helbidetan jasoko diren adierazi beharko dute ikusteko moduan jarritako txartelaren bidez. Helbide hori, betiere, salmentaren ordainagiri edo egiaztagirian azalduko da.

k) Salgai pisagarri eta neurgarriak eskaintzen dituzten saltokiek arauzko baskula eta metroak izan beharko dituzte.

l) Salgai guztiak behar bezala babesturik erakutsi beharko dira jendaurrean, eta lurretik gutxienez 60 cm-ra, duten bolumena edo pisuagatik arazoren bat sortzen ez badute behintzat.

m) Janari-edariak ere, ahal den neurrian, produktu bakoitzaren ezaugarrietara egokitutako edukiontzi homologatuetan erakutsiko dira.

n) Saltzaileek salmentaren ordainagiria edo ziurtagiria ematera derrigortuta daude bezeroak hala eskatzen dienean. Ordainagiri horretan gutxienez ere honako datuak azalduko dira:

Datu pertsonalak.

NAN edo NIE.

Helbidea.

Salgaiak.

Prezioa eta data.

Kopurua.

Sinadura.

ñ) Saltzeko gairik ezingo da saldu nor bere saltokitik kanpo, eta ezingo da oztopatu saltoki arteko kaleetako zirkulaziorik.

o) Merkataritza jardueraren ondorioz sortzen diren zaborrak, ontziak, bilgarriak eta gainerako hondakinak saltzaileak berak bilduko ditu, gero horretarako ezarritako edukiontzietan jasotzeko. Edukiontzi horien kokapena ezingo da aldatu kaleko salmentaren eraginez.

p) Saltokiko instalazioak kontserbazio egoera onean gorde beharko dituzte.

q) Saltokien jabeek ordaindu beharko dituzte zoruan, zuhaitzetan, kaleko argietan eta antzekoetan egin ditzaketen kalteak.

r) Erantzukizun zibileko aseguru poliza izenpetu beharko dute, jarduera gauzatzen den instalazioetan besteei egindako kalteak estali ahal izateko.

s) Debekatuta dago salgaiak bozgorailuen bidez aldarrikatzea.

t) Udal baimena duten saltzaileek, gai honi buruzko Ordenantzak edo indarrean dagoen legediak agintzen duenarekin bat, udal agintari, funtzionario edo horien entitate ordezkariak emandako aginduak beteko dituzte, kaleko salmenta baimentzen deneko merkatuak behar bezala ibil daitezten.

u) Kaleko salmentarako indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen betebeharrak, edota etorkizunean ezartzen dituenak, ezargarri izango zaizkie udal baimenen jabeei, eta legedi hori jagoteko eta betetzeko ardura dagokion herri administrazioaren organo eskudunak izango du.

28 Artikulua. Debekuak.

Aurreko atalean ezarritakoaz gain honako hauke debekatuta daude:

Baimendutako produktuak ez direnak saltzea.

Zarata sortzea, oihuak eta bozgorailuak erabiltzea baimendutakoan izan ezik.

Abereak edukitzea.

Instalazioak jartzea eremutik kanpo.

Beste postuak oztopatuko dituzten elementuak jartzea jendearen pasabidea ere oztopatuz.

Sua piztea.

Orden publikoa aldatzea.

#### IV. TITULUA

#### ZIGORTZEKO ARAUAK

#### I. KAPITULUA. -KALEKO SALMENTA ZAINTZA ETA IKUSKATZEA

29. artikulua.

Udalak, ordenantza honetan ezarritako betebeharrak eta kaleko salmentaren alorrean unean-unean indarrean dauden garbitasun, osasun eta segurtasuneko arauak zainduko ditu, beste herri administrazio batzuek ere euren aginpideez baliatzearen kalterik gabe.

Udalak zaintze zereginak gauzatzekoan, produktu, jarduera eta instalazioak ikuskatu ahal izango ditu, bai eta horiei buruzko behar adina informazio saltzaileei eskatu ere.

Espedienteari hasiera emateko agintzen duen agintaritzak salgai dauden produktuak badaezpada bahitzea erabaki dezake, baldin eta produktu horiek kontsumitzaile edo erabiltzaileen osasuna edo segurtasuna arriskuan jartzen badute, edo kalitatean edo kantitatean iruzurrezkoak, faltsututakoak, bereizgarririk gabeak edo merkataritzarako ezarri diren gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztenak badira.

## II. KAPITULUA. ZIGORTZEKO JARDUNBIDEA

30. artikulua:

Merkataritza jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legean arautzen den Eusko Jaurlaritzako organo zigortzailearen aginpidetaren kalterik gabe, ordenantza honetan xedatutakoarekiko arau haustek udalak zigortuko ditu.

31. artikulua:

Ordenantza honetan aurreikusitako arau hausteagatiko zigorrak ezartzeko eta erabakien aurka jar daitezkeen errekurtsotarako jardunbidea indarreko administrazio jardunbideko arauk ezarritakoa izango da.

32. artikulua:

Kaleko salmentarako udal baimenaren jabeak ordenantza honetan xedatutakoaren aurka euren, euren familiakoek edo saltokian lan egiten duten soldatapeko langileek egiten dituzten arau hausteen erantzule izango dira.

## III. KAPITULUA. ARAU HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

33. artikulua. Arau haustek.

1. Arau haustek arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke:
2. Arau hauste arintzat hartuko da ordenantza honetako erabakiak ez betetzea, betiere larri edo oso larritzat jotzen ez den jokabide horrek zuzeneko diru ondorioz ez badu eta kontsumitzaileei kalterik sortzen ez badie.
3. Larriak. Larritzat hartuko dira honako arau hauste hauek:
  - a) 3 Arau-hauste arin urtebetean.
  - b) Zuzeneko diru-ondorioak dituztenak edo kontsumitzaileei kalte egiten dietenak.
  - c) Osasunaren inguruko arau-hauste larriekin batera gertatzen direnak.
  - d) Derrigorrezko udal-baimenik gabe kaleko salmenta gauzatzea.
  - e) Agintariak eta haien kudeatzaileak ordenantza honetan jagote-lanak gauzatzeko eskatzen dituzten datuak emateari edo eskatzen duten informazioa eskuratzen laguntzeari uko edo aurka egitea, bai eta informazio desegokia, osoa ez dena edo faltsua ematea ere, ukatzea edo trabak jartzea behin eta berriz gertatzen denean edo agintaritzarekin edo haien kudeatzaileekin bortxa, mehatxu edo beste edozein presio-bide erabiltzen denean.
  - f) Arauak hausten dituzten iharduerak eteteko eskakizuna ez betetzea.
  - g) 27 art.an aurreikusitako debekuak, Autonomia edo estatuko legeak ezarritakoa baztertu gabe.
  - h) Errespetu falta udaltzaingoari.
  - i) Produktuen jatorri albaranak ez erakustea.
  - j) Postuan hondakinak uztea edo ingurua garbi ez uztea.

#### 4. Oso larritzat hartuko dira honako arau hauste hauek:

Arau hauste larriak behin eta berriro egitea.

Osasunaren inguruko arau hausteekin batera gertatzen direnak edo gizakien segurtasuna arrisku larrian jartzten dutenak.

Kontsumitzaileei kalte larriak sortzen dizkietenak.

Gehiegizko irabazpidea ematen duten edo ekonomiaren antolaketa larriki aldatzen duten arau hauste larriak.

#### 34. artikulua. Zigorrak.

1. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babeserako legedi orokorrean aurreikusitakoa ezartzearen kalterik gabe, arau hausteak merkataritza jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legean xedatutakoaren arabera zigortuko dira. Arau hauste arinak eta larriak zigortzea udalari dagokio, honako taula honen arabera:

Arau hauste arinak. Arau hauste arinen zigorrak honako hauek izango dira:

- a) Ohartu.
- b) Eta/edo 1.502,53 €-rainoko isuna.

Arau hauste larriak. Honako zigorrak emango dira arau hauste larrietan:

- a) 9.015,18 €-rainoko isuna.
- b) Eta/edo baimena kentzea.

2. Arau hauste oso larriak Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek zigortuko dituzte.

Artikulu honetan aurreikusitako zigorrak bestelako herri administrazioek merkataritza jardueraren legeria edo kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babeserako legeria aplikatzea baztertu gabe ezarriko da, beren eskumenen arabera ezar baititzakete zigorrak.

Egintzaren bat bidegabea balitz, alkatetzari jakinaraziko zaio eskumeneko organo juridikoen esku jar dezan.

#### 35. artikulua. Zigor osagarria.

Espediente horren erabakia hartzea dagokion aginteak zigor gehigarri bat erabaki dezake: Faltsifikaturiko, iruzurrezko, identifikatu gabeko edo komertzializaziorako behar-beharrezko diren arauak betetzen ez dituzten gaien konfiskazioa.

#### 36. artikulua. Isunen mailaketa.

Nolanahi ere, ezar daitezkeen zigorrak mailakatzeko, kontuan izango dira betiere saldutako produktuen izaera, egindako kalteak, araua hautsi duenaren asmoa edo behin eta berriro egitea eta arau hausteak gizartean izan dezakeen eragina.

#### 37. artikulua. Preskripzioa.

1. Ordenantza honetan aurreikusitako arau hauste eta zigorrek sei hilabetera galduko dute indarra, arinak badira; urtebetera, larriak badira; eta bi urtera, oso larriak badira.

2. Arau hausteen indarra galtzeko epe horiek arau hausteak gertatu diren egunetik hasiko dira kontatzen.

Dagokiona jakinaren gainean egonik, zigortzeko jardunbidea hasteak preskripzioa etengo du, eta zigor

espedientea hilabete baino denbora luzeagoz geldirik egoten bada, ustez arduraduna denak zerikusirik izan gabe, preskripzio epeak berriz aurrera egingo du.

3. Zigorrak indarra galtzeko epea zigorra jartzeko erabakia indarrean jarri eta biharamunetik aurrera hasiko da.

Dagokiona jakinaren gainean egonik, egitaratzeko jardunbidea hasteak preskripzioa etengo du, eta epeak berriz ere aurrera egingo du, arau hausleak zerikusirik izan gabe jardunbide hori hilabete baino denbora luzeagoz geldirik badago.

#### BEHIN-BEHINEKO XEDAPENA

Lehena.

Ordenantza hau indarrean jarri baino lehen lortutako udal baimenek indarrean jarraituko dute, hain zuzen ere ordenantza horren babesean, indarraldia amaitu arte, urte bete baino gehiago ezin luza daitekeelarik.

Bigarrena.

Ordenantza hau indarrean jartzerakoan tramitazioan egon daitezkeen kaleko salmentarako baimen espedienteak, ordenantzan xedatutakora lotuko dira, nahiz eta espediente horiek lehenagotik irekitakoak izan. Horretarako, interesatuei dokumentazio gehigarria aurkezteko eskatuko zaie, arauz hala eskatu behar bada.

#### XEDAPEN DEROGATZAILEA

Ordenantza hau indarrean sartzen den une berean indargabetu egingo dira, maila berekoak edo beheragokoak izanik, orain onartu den testuaren kontra badoaz, hori ukatzen badute edo horrekin bateragarriak ez badira.

#### AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Toki-Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan agindutakoaren arabera jarriko da indarrean.